

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralarren legebiltzarkide Daniel Maeztu Perezek, indarrean den Eusko Legebiltzarren erreglamenduaren 172. Artikulua eta hurrengoak oinarri hartuta, “Zallobentako harrobiari” buruzko hurrengo legez besteko proposamena egiten dio Legebiltzarrari, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

ZIOA

Eusko Jaurlaritzak 1989ko abenduaren 29an Urkiola Parke Natural izendatu zuen. Ordutik aurrera Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatu du eta bere gain hartu du inguru naturala babesteko ardura. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak, Zallobentako harrobiaren ustiatze lanak baimendu zituen, 1998ko martxoan.

Gaur egun Canteras y Hormigones Zalloventa SA merkataritza-sozietateak kudeatzen duen Urkiolako Parke Naturaleko harrobia kudeatzen du, azken urteetan ustiapen jarduera horren aurka jasotako ebazpenak kontutan hartu gabe.

2001ean EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi zuen harrobia kudeatzen duen enpresak ustiatzeko zeukan A mailako baimena. Zalloventak orduan helegitea aurkeztu zuen Espainiako Auzitegi Gorenean. Auzitegiak lau urte eman zituen auzia berraztertzeko, baina 2005ean berretsi egin zuen EAEko Justizia Auzitegiaren epaia. Beraz, Zalloventa enpresa lau urtez aritu da Eskubaratz mendiaren berezko orografia kaltetzen.

Bitartean, 2003an enpresak estrategia berria abiatu zuen. Zalloventak bere ustiapen baimena A mailatik C mailara aldatzea aurrikusi zuen. Batetik, C maila horrek, indarrean zegoen aurkako epaia saihestuko lukeelako; bestetik, Urkiolako Parke Naturalaren eremuan ustiatzea ahalbidetuko liokeelako. Hala, 2004an Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko Meategien Zuzendaritzaren baimen hori eskuratu zuen. Mañaria Bizirik deritzon herri plataformak, ordea, erabaki horri aurre eginez, helegitea aurkeztu zuen eta 2007an Auzitegi Nagusiak atzera bota zuen Jaurlaritzaren sailkatze aldaketa.

Enpresak, ordea, Auzitegi Gorenera jo du eta horrek gatazka hau beste lau urtez luzatu dezake. Izan ere, indarrean dagoen Urkiolako Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko Planak (EKAP) aukera hori jasotzen du. Hori ekiditeko, Urkiolako Patronatuak Foru Aldundiari

2009ko martxoaren 25ko osoko bilkuran araudi aldaketa eskatu zion, EKAPean jasota dauden ustiaketa mugak aldatzeko prozesua martxan jartzea aginduz. Aldaketa horren helburua harrobiaren eremua parke naturaletik kanpo uztea izanik.

2009ko urtarrilaren 27ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian berriz, honako hau argitaratu zen: **“Canteras y Hormigones Zallobenta SA enpresak Mañariako udalerrian sustatzen duen EKAPn finkatutako Urkiolako parkearen mugan Zallobenta harrobia ustiatzeko proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluazioaren prozedura bete behar duela”**. Era horretan, ustiapen proiektu berri bat martxan jartzeko baimenak eskuratzeko prozesua abiatuz.

Horren guztiaren aurrean, Aralar Taldeak hurrengo Legez Besteکو Proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA:

Eusko Legebiltzarrak Eusko jaurlaritzari eskatzen dio:

- 1- Berehalakoan eten dezala “Zallobenta” harrobiari buruz Ingurumen Sailak 2009ko urtarrilaren 27ko ebazpena, 2009ko maiatzaren 19an EAEAn argitaratutakoa.
- 2- Urkiolako Parke Naturalaren EKAP aldatzeko martxan dagoen prozedura bukatu bitartean Zallobenta harrobiari ustiapen baimen berri bat eskuratzeko prozesua etetea.

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 25an

Daniel Maeztu Perez

Aralar taldeko legebiltzarkidea